

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko urriaren 10etik urriaren 14rako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


ASTE HONETAN MERKATUETAN

GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ZEW ALEMANIA



Datuaren analisia

Inbertsiogile alemaniarren konfiantzak hobera egin du urrian aurreko hileko egoerarekin alderatuz, ZEW adierazlearen arabera, iraileko 0,5 puntutik 6,2 puntura igo dena. Hala ere, oraindik oso urrun dago bere 24,1eko batez besteko historikotik. Gaur egungo egoera neurtzen duen osagaiak aurreikuspenak gainditu zituen, 55,1etik 59,5era igo baitzen, aurretiko kalkuluek 55,5era soilik igoko zela zioten arren. Kontsultatutako finantza-arloko adituek euroguneko etorkizuneko kalkuluak ere hobetu dituzte, 12,3raino (5,4 irailean), nahiz eta gaur egungo egoerarekin ezkorragoak diren (-12,8 versus aurreko hileko 10,5).

Adierazlearen azalpena

Alemaniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomiko" islatzeko balio du. Hilerok argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI



Datuaren analisia

Alemaniako KPIa % 0,7koa izan zen irailean. Iazko hil berarekin alderatuta prezioek izan duten gorakada bat dator hil hasieran aurreratutako estatistikarekin, eta % 0,4ko igoera da uztail eta abuztuarekin alderatuta. Espainian, KPIak % 0,2 egin zuen gora urteko tasan irailean. Gauzak horrela, prezioak maila positibora itzuli ziren irailean Espainian, nahiz eta merkatuaren aurretiko kalkuluak baino pixka bat beherago geratu ziren. Urteko inflazioan eragin handiena izan duten sailak erregaien eta argiaren prezioaren igoerak izan dira. Italian, behin betiko datua aurreikuspenekin bat etorri zen.


Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KONTSUMITZAILEAREN SENTIMENDUA



Datuaren analisia

Urrian, Michiganeko Unibertsitateak prestatzen duen sentimenduaren indizea aurrekositako 91,8tik eta aurreko datuko 91,2tik beherako 87,9an kokatu zen, eta azken hamahiru hiletako daturik okerrena izan zen. Datuaren xehetasunak kezkarriak dira, etorkizuneko aukeren osagaiaren okertzeak (76,6 vs 82,7 aurrekoan) eragin baitu beherakada hori. Gaur egungo egoeraren osagaiak, aldiz, hobera egin zuen (105,5 vs 104,2).


Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BALANTZA KOMERTZIALA ETA PREZIOAK



Datuaren analisia

Txinan, esportazioek azken hiletako berreskurapena eten zuten, % 5,6 egin baitzuten behera (% 2,5eko igoera espero zenean), 7 hiletan izandako beherakadarik handiena. Inportazioek, berriz, % 2,2 egin zuten gora. Hartara, iragan hileko Txinako kanpo merkataritza guztiak 2015eko irailean baino % 2,4 gutxiago lortu zuen.

Bestalde, iraileko KPIa argitaratu zen. Inflazioa urte arteko % 1,9raino heldu zen (% 1,6 aurrekusitakoa eta % 1,3 aurrekoa), gero eta igoera txikiagoko lau hilabeteko boladari amaiera emanez. Elikagaien eta energiaren prezioen igoerek bultzatu zuten gorakada hori.

Adierazlearen azalpena

Balantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde batean ekoiztu eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde batean ekoiztu eta erosten diren balioaren arteko aldea.

Ekoizlearentzako prezioen indizea inflazioaren datuaren jarraipena egiteko erabiltzen den adierazle bat da. Ekoizleen eskutik atera bezain laster, ekoizleek erosi eta saldutako ondasun eta zerbitzuen prezioen bilakaera neurtzen du. Hortaz, lehenengo merkaturatze-kanaleko prezioen bilakaera neurtzen du.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
10/17	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
10/17	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 0.4
10/17	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	1.00
10/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.2
10/18	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 0.9
10/18	Erresuma Batua	Txikizkako prezioen indizea	264.7
10/18	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 1.5
10/18	Estatu Batuak	Etxebizitzaren merkatuaren NAHB indizea	63
10/19	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.4
10/19	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10.7
10/19	Txina	Urte arteko BPGd	% 6.7
10/19	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.9
10/19	Eurogunea	Urte arteko eraikuntzaren ekoizpena	--
10/19	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
10/19	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1175k
10/19	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 2.9
10/19	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	% 1.1
10/19	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
10/20	Alemania	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	-% 1.2
10/20	Espainia	Balantza komertziala	--
10/20	Italia	Kontu korrontearen balantza	--
10/20	Eurogunea	ECB gordailuen organismoen tasa	-% 0.400
10/20	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	250k
10/20	Estatu Batuak	Etengabeko eskaerak	2060k
10/20	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.35m
10/20	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 0.4
10/20	Estatu Batuak	Lider indizea	% 0.2
10/21	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-8.0

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Aste hegazkorra, itxiera positiboekin Europako burtsetan eta jaitsiera moderatuekin Wall Streeten. Balantze mistoa Asian eta Merkatu Gorakorretan. Inbertsiogileek Txinatik zetozen datu makro mistoetan, petrolioaren inguruan eman diren albisteetan eta hirugarren hiruhilekoko enpresa-emaizen aurkezpenen jarri dute arreta. Txinan, ostegunean esportazioen inguruan argitaratu ziren datu txarrek eskari orokorraren sendotasunari buruzko zalantzak eragin zituzten, eta horrek beherako bidea zeukaten mugimenduak eragin zituen errenta aldakorrean. Hala ere, ostiralean indizeek egoerari buelta eman zioten, Asiako erraldoiaren prezioen adierazleei buruzko albiste onei esker. Petrolioaren prezioari dagokionez, ekoizpena mugatzeko eman daitekeen akordioaren aurreko zalantzek hegazkortasuna sortu dute errenta aldakorrean. Testuinguru horretan, Alcoa Wall Streeteko emaitzen aurkezpenaren denboraldia ireki eta merkatuan etsipena sorrarazi zuen. Estatu Batuetako bankuen lehenengo emaitzetan ezustekoak eman ziren, eta etekinak murriztu bazituzten ere, aurreikuspenak gainditzea lortu zuten.

ERRENTA FINKOIA:

AEBtan, Fed-en aktek ez zuten nobedaderik ekarri, baina abenduan tasen igoera bat emango den susmo orokorra indartzeko balio izan zuten. Bonu amerikarren erantzuna errentagarritasuna handitzea izan da, eta Alemaniako bund-a tasa positiboetan dago oraindik. Merkatu periferikoetan, zor portugesearen portaera ona nabarmendu behar da, herrialde horretako finantzen ministroak, DBRS rating-agentziarekin bildu ondoren, agentziak Portugaleko zorraren kalifikazioa ez duela aldatuko ziurtatu ondoren. Gogoan izan behar da DBRS dela bonu portugesa investimen grade-en mantentzen duen bakarra, eta horri esker hautagarria da EBZren programan.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dolarra euroaren aurrean indartu da, abenduan AEBtan tasak igotzeko dauden aukerak handitu baitira. Liberak berdinduta bukatu zuen, Brexit "gogor" baten arriskuak txikiagoa dirudien arren. Hegazkortasun handia petrolioaren prezioan, nahiz eta asteko itxiera laua izan zen. Alde batetik, Errusiako presidentea ekoizpena izoztu edo murrizteko prest agertu zen, LPEEren proposamenekin bat etorritz. Bestetik, LPEEren ekoizpenen txostenaren arabera, ekoizpena hazi egin zen irailean, eta beraz, hura murrizteko akordioaren aukerak hoztu egin dira.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.296,54	-0,64	1,47
IBEX 35	8.767,90	1,67	-8,13
DJ EURO STOXX 50	3.025,19	0,82	-7,42
DJ STOXX 50	2.832,58	-0,01	-8,63
FTSE	7.013,55	-0,44	12,35
S&P 500	2.132,98	-0,96	4,36
Dow Jones	18.138,38	-0,56	4,09
NASDAQ	5.214,16	-1,48	4,13
NIKKEI 225	16.856,37	-0,02	-11,44
MSCI EMERGENTES (Lo)	48.556,36	-1,45	9,16
MEXBOL	47.701,45	0,22	10,99
BOVESPA	61.767,22	1,08	42,49
SHANGHAI	3.207,16	1,97	-13,42
Rusia Rts Moscú	983,04	-1,90	29,85

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	2006 ald
ALEMANIA 2 URTE	-0,66	0,01	-0,31
ESPAINIA 2 URTE	-0,22	-0,01	-0,22
AEB 2 URTE	0,83	0,00	-0,21
ALEMANIA 10 URTE	0,06	0,04	-0,57
ESPAINIA 10 URTE (*)	1,13	0,11	-0,65
AEB 10 URTE	1,80	0,08	-0,47
ALEMANIA 30 URTE	0,68	0,03	-0,81
ESPAINIA 30 URTE	2,24	0,08	-0,74
AEB 30 URTE	2,56	0,11	-0,46

Kreditu-spreada (op)

MARKIT ITRX EUROPE 12/21	73,92	0,09	-3,35
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	332,99	-0,12	18,38

(*) Erreferentzia aldaketa

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,10	-2,05	1,07
Yena / Euroa	114,25	-0,95	-12,58
Libera / Euroa	0,90	0,03	22,10

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brent)	50,36	0,06	40,87
Urrea	1.251,43	-0,44	17,90

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.